



Arartekoaren 2018R-2785-17 Ebazpena, 2018ko ekainaren 21ekoa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio berriz azter dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria atzera botatzeko erabakia.

Aurrekariak

1-. Herritar batek abiarazitako kexa izapidetzeko onartu zuen Arartekoak. Horren bitartez, kexagileak erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera atzera botatzeko erabakia hartu zela-eta.

Interesdunak idazkian azaldu zuenez, Lanbiden diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera izapidetu ondoren, urte bereko urriaren 5ean dokumentazioa eskatuz, Lanbidek hainbat dokumentu aurkezteko eskatu zion.

Horri erantzunez, kexagileak bi alditan aurkeztu zuen dokumentazioa. Lehenik eta behin, 2017ko urriaren 13an pasaporte berria zuela adierazi eta haren kopia eman zuen (2017/336116 erregistro zenbakia duen egiaztagiria); halaber, seme-alaben arteko neurriak jasotzen zituen dibortzio-epaia aurkeztu zuen. Bestalde, 2017ko urriaren 26an bizi den etxebizitzari lotutako zenbait dokumentu aurkeztu zituen, zehazki, katastroaren ziurtagiria, eskriturak eta etxebizitzako banaketaren berri ematen duen plano (2017/350366 erregistro zenbakia duen egiaztagiria).

2017ko urriaren 27ko ebazpenaren bidez, Lanbidek artxibatze erabakia hartu zuen kexagilearen eskaera atzera bota izanagatik.. Arrazoiak honako hauek ziren:

“Eskatutako dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea.

-Epaitegiaren hitzarmen arautzailea, epai irmoa edo behin-behineko neurriak badaude”. (sic)

2017ko abenduaren 7an, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen kexagileak.

Gainera, Arartekoari beste eskaera bat izapidetu zuela jakinarazi zion, eta hura, azkenean, 2018ko apirilaren 19ko ebazpenaren bidez onartu zela; horren ondorioz,





kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen ditu ondorioak 2017ko abendutik aurrera izanik. Nolanahi ere, Arartekoko langileekin izandako azken jakinarazpenetan, eskaera atzera botatzea erabaki zuen ebazpenarekin ados ez zegoela esaten jarraitzen zuen.

2-. Kexari izapide egokia emateko xedearekin, erakunde honek informazioa eskatu zuen honen gainean: interesdunak aurkeztutako dokumentuak baliozkotzat edo behar bestekotzat ez jotzeko arrazoia zein zen.

3-. Zuzendari nagusiak xede horretarako egindako txostenaren bidez, Lanbidek honako hau adierazi zuen:

"Lanbidek, atzera egitearen ebazpena idaztean, oker idatzi zuen interesdunak ez zituela aurkeztu 'Hitzarmen arauemailea' izeneko agira eta 'Etxebizitzaren ezaugarriak azaltzen dituen agiri legala', horretarako jarritako epean aurkeztu baitzituen agiriok erreklamaziogileak.

Dena den, etxebizitzaren baldintza ez zuen betetzen interesdunak, bizikidetzaren unitateen kopuruak (4) ezin baitu logelena (3) baino handiagoa izan.

Interesdunak berriro ere eskaera egin zuen 2017ko abenduaren 21ean, eta etxebizitzako gela kopurua bizikidetzaren unitateen kopuruarekin bat etorri beharrez baldintza betetzen zuen orduan. Horrenbestez, Lanbidek 2018ko martxoaren 21ean emandako ebazpen bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortzen zaio, ondorioetarako hasiera-data honekin: 2017ko abenduaren 22a."

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera atzera botatzeko erabakia hartu zuen, eta hura artxibatze erabakia, dokumentu zehatz batzuk ez direla aurkeztu argudiatuta.





Lanbideko zuzendari nagusiak erakunde honetara igorritako txostenak aitortzen duenez, eskatutako dokumentazioa kexagileak aurkeztu zuen. Hala ere, Lanbidek ez du berrikusi eskaera atzera botatzeko erabakia, hau da, enplegu erakunde autonomoak kexagilearen eskaeraren izapidea amaitutzat jotzeko erabakiari eutsi dio, honako hau iriztean: hiru gelako etxebizitza batean lau bizikidetzaren unitate elkarrekin bizitzea ez dela bateragarria diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen dituen araudian jasotako betekizunak betetzearekin.

Enplegu erakunde autonomoak, aldiz, txostenean ez dio zehaztu erakunde honi egoera horrek beteko ez lukeen agindu zehatza. Eta, administrazio prozeduraren bermeen ondorioetarako honek garrantzi handiagoa du: ebazpenean ez duela argitu diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera atzera botatzeko erabakia hartzeko arrazoiak zein diren.

Beraz, kexagileak ez du jakin zein izan diren 2017ko irailean abiarazitako eskaerari amaiera emateko benetako arrazoiak eta, hortaz, bere interesak ezin izan ditu behar bezala babestu. Kexagileak bere aukerako berraztertze errekurtsoa honako argudio hau emanez oinarritu du: berak eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuela, nahiz eta ebazpenean hori ez zuela egin esan; ezin izan du argudiatu, ordea, ez zekiela etxe berean beste pertsona bat erroldatuta zegoenik edo harekin harremanik ez zuenik.

2. Aipatu denez, Lanbidek Arartekora igorritako txostenean ere ez du lege-xedapena aipatu; lege-xedapen horretan ezartzen da etxebizitza bateko bizikidetzaren unitateen kopuruak ezin duela gainditu bertan dagoen gela kopurua.

Antzeko arazoak aztertu diren beste espediente batzuetan (adibidez, errentamendu kontraturik ez dagoen etxebizitza batean erroldatutako pertsonen kasuak), Lanbidek hartutako erabakien arrazoiak azpierreantariak eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak honako haueetan jasotako betebeharrak agian ez betetzea izan da: abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.b) artikulua, azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez aldatutakoa, eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.b) artikulua, honako honetan datzana: *“Titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan.”*¹

¹ Ikusi Arartekoaren 2018IR-1613-17 Ebazpena.



Beste zenbait kasutan², Lanbidek erakunde honi erantzuteko emandako arrazoiak honako hau iradokitzea izan da: hiru gelako etxebizitza batean lau pertsona errolatuta izateak errentamendu nahiz balizko azpi errentamendu eran izenpetutako kontratuek xederik ez izatea ekar dezakeela.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak erakunde honetako langileei jakinarazi dienez, haren etxean bizi diren bizikidetzak unitateak hiru helduk eta haur batek osatzen dute. Adingabeak amarekin partekatzen du gela, etxebizitzako errentariarekin. Aurrez, adierazi duenaren arabera, etxean beste pertsona bat izan zen errolatuta; nolahi ere, hura errentariaren ezagun bat zela ziurtatu du eta ez zekiela etxean errolatuta zegoenik, ez baitzen benetan bertan bizi.

Illo horretan, nabarmendu behar da kexagilea hizpide dugun etxebizitzako azpierreteria dela, eta horregatik, antolaketa ekonomikoari nahiz etxebizitzako espazioei lotutako gorabehera askok ez dutela harekin zerikusirik.

Erakunde honek zenbait gogoeta egin ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren araudian halako betebeharrak ez jasotzearen gainean; hala, funtsean, adierazi du etxebizitzan dauden gela kopurua baino pertsona gehiago errolatuta izatea, egoera hori ezin zaiela azpierreteriei egotzi; izan ere, kexagileak ez du erroldan inor inskribatu, eta ondasun baten araubide ekonomikoari buruz erabakitzeke ahalmenik ere ez du (haren titulartasuna beste pertsona bati dagokio).

4-. Hala ere, Arartekoaren ustez, etxebizitza horretako erroldan izena emandako pertsona kopurua gela kopurua baino handiagoa izateak irregulartasunen bat egon daitekeela adieraz dezakeen arren, hori ez da inolako oztopoa administrazioak betekizunak betetzen diren egiaztatzeko jarduketa bat egin dezan. Kasu horretan, etxebizitzan dauden gela kopurua baino pertsona gehiago errolatuta izatearen ondorioz (erakunde honetara igorritako txostenean adierazten denez) artxibatu da eskaera, beste ikerketa edo egiaztapenik egin gabe.

Erakunde honen aburuz, ordenamendu juridikoarekin bateragarriagoa den jarduketa batek administrazio prozeduraren instrukzioko gutxieneko bermeak errespetatzea ekarriko luke –Herri Administrazioen Administrazio prozedura Erkideari buruzko Legearen 75. artikulua–, kontraesanaren printzipioa errespetatzeari buruzkoak direnak.

² Ikusi 87/2017/QC erreferentzia zenbakia duen kexa espedientea.



Horri dagokionez, azpimarratu behar da ugariak direla erakunde honetan izapidetzen diren kexa espedienteak, jatorria Lanbidek eskatuta egiten diren polizia txostenetatik eratorritako eteteetan eta iraungitzeetan dutenak. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edota etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradunak diren bizikidetzaren unitateen benetako osaera zehazteko eskatzen ditu Lanbidek polizia txosten horiek. Halaber, Lanbidek sarri erabiltzen du tresna hori, erroldako datuetatik eratorritako benetako bizilekuaren "*iusuris tantum*" presuntzioa suntsitzeko xedez, eta, hizpide dugun kasuan, egokitzat jotako egiaztapenak burutu ahal izan ditu kexagileak adierazitako bizikidetzaren unitatearen benetako osaera egiaztatzeko. Hau da, beharrezkotzat jotzen diren txostenak eska daitezke, hala badagokio, haiek erreklamatzeko egokia den ebazte aldera, behar bezala oinarrituta.

Izan ere, Administrazio Prozedurari buruzko Legeak, administrazio egintzen baliozkotasun eta eraginkortasuneko baldintzak arautzen dituenak, frogaldi bat ezartzen du 77.2 artikuluan, honako hau esaten duenean: "*Administrazioak ez baditu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak, edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, prozeduraren instruktoarak frogaldi bat hastea erabakiko du, gehienez hogeita hamar egunekoa eta gutxienez hamarrekkoa, egoki deritzon froga guztiak egin daitezkeen.*". Halaber, 77. artikulua hau xedatzen du berariaz: "*1. Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiaztatu daitezke prozedura ebazteko garrantzizko diren egitateak. Frogabideak balioesteko irizpideak Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitakoak dira.*"

5. Horri erantsi behar zaio Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legearen 84. artikulua aplikatuz, prozedurari amaiera ematen diotela ebazpenak, atzera botatzeak, eskubideari uko egiteak, amaitzeko beste era batzuen artean. Kasu honetan, eskatutako dokumentazioa aurkeztean, Lanbidek administrazio prozedura eskaera ukatzen duen administrazioko ebazpen baten bidez amaitu beharko luke honetan oinarrituz: bizikidetzaren unitateen kopuruak gelena gainditzen zuela.

Kontuan hartu behar da eskaera atzera botatzea erabaki zen ebazpenaren arrazoiketa egoki bat ez izateak bere eskubidea benetan defendatzea eragozten duela. Gai horren harira azpimarratu behar da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.1.a) artikulua aintzat hartu behar dela; honako hau agintzen du: "*1. Arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz: a) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak. (...)*"





6-. Beraz, azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoak ondorioztatu du Lanbideren jarduna asko hobetu daitekeela.

Erakundea Lanbiderekin bat dator etxebizitza batek bertan bizi direnekiko duen harremana argitu behar dela irizteko garaian, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko betekizunak betetzen direla zehazte aldera; dena den, uste du kexagileak betebeharren bat bete gabe utzi duela ondorioztatzen utziko duen behar besteko frogak batzeko jarduketarik ez duela egin.

Aldiz, kasu honetan, Lanbidek dio etxebizitzan laugarren pertsona bat errolatuta izateak betebehar bat ez betetzea dakarrela, beste ikerketarik egin gabe, eta jakinarazi gabe arrazoi hori eskaeraren artxiboak azaltzen zuena zela. Hori guztia, kontuan hartuz etxe berean pertsona bat errolatuta izatea bere bizikidetza unitatekoa ez den beste pertsona baten jokabideari erantzuten diola, eta haren gainean ezin dela inolako kontrolik eskatu.

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera, honako iradokizun hau egin zaio Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari

Gomendioa

Arartekoak Lanbideri iradoki dio, aurreko gogoetei erreparatuz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera atzera botatzeko ebazpena berrikus dezala, 2017ko irailean lehenengo eskaera egin zuenetik sortutako atzerakinei lotuta erabaki horretatik sor daitezkeen ondorio ekonomikoekin.

